6-8
URTE

GENERO PAREKIDETASUNA

URTEBETETZE KOLORETSUA

kaleidoskópio

JARDUERA
1. zk.
2016ko ekaina

OXFAM Intermón

Urtebetetze koloretsua

Egunon denoi. Abigail da nire izena baina lagunek Abi deitzen didate beti. Plazer handia da zuekin izatea.

Zerbait gertatuko da aurki eta horixe azaldu nahi dizuet. Honezkero asmatuko zenuten zer den, ezta? Tira, esango dizuet. Aurki urteak beteko ditut, zazpi aurten. Poz-pozik nago, sekulako ilusioa egiten dit horrek, ospatzeko festa handi bat egingo dugulako eta bertara etorriko da amona, urruti-urrutitik, Guatemalatik, bi izebak... horiek oso atseginak dira, beti dabiltza nirekin jolasten eta istorio zoragarriak asmatzen eta kontatzen dituzte. Eskolako kideak ere etorriko dira festara...

Egun ederra izango da, ederki pasatuko dugu!

Amak eta biok pentsatu dugu festa egunean jende guztiarentzako askaria prestatzea, sekulako pastela, jolasak... Hori guztia antolatu egin beharko dugu, denon artean egin dezagun. Beraz, oraintxe bertan, egin beharko diren gauzen zerrenda egingo dugu, nork zer egingo duen, alegia. Zerrenda egiten anaia zaharrak lagunduko digu.

JARDUERA

Zuek ere ospatzen al duzue urtebetetzea?

Orduan, egidazue, mesedez, zuen urtebetetze-egunari buruzko marrazki bat. Bikainak izango dira zuen lanak, noski!

Maitasunen botikina

Kaixo, lagunak, hemen gara berriz!

Oraindik ez da nire urtebetetze eguna, hau urduritasuna! Amona Manoli hemen da eta horrek ilusio handia egiten dit. Ikusteko gogo handia neukan, bera Guatemalan geratu zelako ama, anaia eta hirurok handik alde egin genuenean, amak lanik topatzen ez zuelako. Ni txiki-txikia nintzen baina oraindik gogoratzen naiz negar asko egin genuela, elkarrengandik banatzean.

Urtebetetzerako zein opari gustatuko litzaidakeen galdetu dit eta nik, zernahi onartuko nuela baina, aukeratzekotan, tren-lokomotora bat, orain bagoiak baitauzkat baina makina ez. Barre-algaraka hasi da amona, ez dakit zergatik...

Amonari esan ez diodana beste gauzatxo bat da: barru-barruan gehien gustatuko litzaidakeen oparia ez dela eros daitekeen gauzarik, beste zerbait baizik... beste inork gogoratzen ez badu ere, nik aspaldi-aspalditik hausnarrean ibili dudan gauzatxo bat...

Pittin bat tristetu naiz eta amonak atzeman omen dit; amonak, triste zeudenean, lagunekin egiten zuten asmakuntza bat partekatzea proposatu dit:

Botikina aparta da: guk, kartoizko kutxa batekin egin dugu eta gauza piloa sartu dugu bertan: maitasun-edenak, besarkada-tiritak, malko-kentzeko partxeak, oihu-zorroak eta muxu-potoa. Ederra! Dena bukatu dugunean, amonak besarkada-tirita bat atera eta oparitu egin dit. Eta eragina erakutsi du, gainera!

Gida didaktikoan topatuko dituzue jarduera guztiak egiteko argibideak.



JARDUERA

Horrelako bat egin nahi al duzue gelan?

Osatu ezazue maitasunen botikin bat: ipini bertan maitasun-edenak, besarkada-tiritak, malko-kentzeko partxeak, oihu-zorroak... Muxu-potoa zoragarria da: muxuz bete behar duzu eta, behar denean, banan-banan hartuko dituzu bertatik, lagunei, amari edo beste edonori emateko.

Botikina eginda daukazuenean, nahi baduzue, hartu bertatik eta emaiozue, zuen ustez, gehien behar duenari. Erabil ezazue nahi duzuen guztietan: bertako materiala ez da agortzen eta nahi bestetan bete ahal izango duzue berriro.

Nork zer egiten duen urtebetetze-ospakizunean

Urduri baino urduriago nago baina, azkenik, urtebetetze-eguneko festa antolatzeko gauzen zerrenda osatu dugu. Ez da lan erraza izan, ez: hasieran, nork zer egingo zuen idazten hasita, ia-ia dena amak egin behar zuela ikusi dugu. Baina hori zuzena ez denez, berriro ekin diogu hasieratik. Azkenean, nahikoa banatuta geratu da lana: nire eginkizunak izango dira mahaia jarri eta jasotzea, nire gela ordenatzea, inbitazio-txartelak marraztea eta, gehien gustatzen zaidana: amonari pastela egiten laguntzea!

Zuek ba al dakizue urtebetetze eguneko ospakizunean nork zer egiten duen?

JARDUERA

Orain proposatuko dizuet ondoko fitxa hau osatzea, familiartekoen laguntzarekin. Horrela ikusiko dugu etxeko lanak nola banatzen dituzuen. Ondoren, ikasgelan, jaso itzazue taula handi batean fitxa guzien emaitzak; azter ezazue etxeko lanen banaketa bidezkoa den ala ez.

	Emakumeak	Gizonezkoak	Neskatoak	Mutikoak
> Janaria erosi eta prestatzea				
> Apaingarriak egin eta etxea dotoretzea				
> Jendea inbitatzea				
> Mahaia jartzea				
> Ospakizuna bukatuta, dena jaso eta garbitzea				
> Eskobatzea				

	Emakumeak	Gizonezkoak	Neskatoak	Mutikoak
› Oheak egitea				
› Entxufea konpontzea				
› Gela ordenatzea				
› Jangela eta egongela txukuntzea				
› Koadroa eskegitzea				
› Animaliak (baldin badaude) zaintzea				
› Bainugelak garbitzea				
› Landareak ureztatzea, baratzeaz arduratzea				

Gure gela

Ederki, neska-mutilak, nire gela jasotzera noa. Hau aspertzea...! Zuek ere gela jaso behar duzue etxean? Aizue, zergatik ez didazue bidaltzen zuen gelaren marrazki bat? Bikaina izango da, seguru! Egin etxean bertan eta eskatu laguntza familiartekoei, nahi baduzue.

Seguruenik, zuen gelak polit-politak dira, zoragarriak. Nirea txiki-txikia da baina berde kolorez margotu genuen, lorategi bat bezala, eta niri izugarri gustatzen zait. Hementxe duzue nire gelaren marrazki handi samar bat:

JARDUERA

Marraztu ezazu zeure gela. Irudian ahalik eta xehetasun gehenak agertzea komeni da, gehien gustatzen zaizkizuen gauzak nabarmenduta.

Besteak beste, adibidez: maindireak nolakoak dira? Zer dago mahai gainean? Eta paretetan? Ba al dago jostailurik? Zein, esate baterako...? Garrantzi itzelezko oharra: ez ipini izenik marrazkian bertan, inortxok ere jakin ez dezan nork egina den; jarri izena atzealdean, ezkutuan. Gero, ikasgelan, marraztuta dagoen gela hori neska batena edo mutil batena den asmatu beharko duzue.

Amona Manolik tren-gidaria izan nahi zuen

Egunon! Zuek zarete Abiren lagunak, ezta? Biziki pozten nau zuek ezagutzeak. Une honetan Abi eskolan da eta nik aukera aprobetxatu dut zuei idazteko. Ba al dakizue zergatik? Oraintxe esango dizuet.

Ni umea nintzela, urtebetetzerako beti-beti tren-makina bat eskatzen nuen, huraxe baitzen nire ametsetako oparia. Lokomotora bat, munduan zehar bidaiatzen ibiltzeko, jolasean. Horregatik egin nuen barre, gustura egin ere, Abigailek tren-makina izateak ilusio handia egingo ziola esan zidanean.

Baina, badakizue, urtea joan, urtea etorri eta ene urtebetetze egunean tren-makinarik ez zen agertu... Anaiak esaten zidan trena ez iristea normala zela. "Normala? Zergatik, normala?", galdetu nion eta, berak, nik panpinekin jolastu behar nuelako, ez trenekin. "Hori ez da zuzena!", pentsatu nuen, "Zergatik ez naiz jolastuko ni trenekin?" Ez nuen ulertzen hura, izugarri haserretu nintzen orduan.

Nire pasadizoa azaldu dizuet; orain, zuena entzun nahiko nizueke... Adibidez, zein dira gehien gustatzen zaizkizuen opari eta jostailuak?

Gu umeak ginela, neskak jostailu batzuekin jolasten ziren eta mutikoak, beste batzuekin. Orain ere oparitzen zaizkie arrosa koloreko gauzak neskei eta urdinak mutikoei? Eman buelta pare bat gai horri ikasgelan.

JARDUERA



Margoztatu zuen gustuko opariak. Ondoren, alderatu zuen fitxa eta gelako ikaskideek egindakoak.

Gure aitona-amonen garaietan...

Abik eskolarako lan bat entregatu behar du bihar eta lagunduko diodala esan diot. Zuek ere laguntzea nahi duzue? Kontua da Abik jakin behar duela gure aitona-amonen garaietan emakumeak eta gizonak nolako lanetan ibiltzen ziren. Zergatik ez diezue galdetzen zuen etxekoei?

JARDUERA

Galdetu zuen senideei amonaren garaietan zeinek egiten zituen ondoko lanak:



Gure garaietan	Gizasemeak	Emakumeak
> Gaixoak sendatzen zituen...		
> Autobusa gidatzen zuen...		
> Eskolak ematen zituen...		
> Ogia saltzen zuen...		
> Trafikoa zaintzen zuen...		
> Gimnasia ematen zigun...		
> Estatua gobernatzen zuen...		
> Haur txikiak zaintzen zituen...		
> Suteak itzaltzen zituen...		

Gure garaietan,	Gizasemeak	Emakumeak
› Automobilak konpontzen zituen...		
› Etxeak egiten zituen...		
› Ilargia zapaldu zuen...		
› Liburuak idazten zituen....		
› Unibertsitatean ikasten zuen...		

JARDUERA

Galdetu senideei, aitona-amonen garaietan, emakumeak eta gizonezkoak zein lanetan zebiltzan. Garai haietan gizonak egiten zituen lanek eta emakumeak egiten zituenek zer pentsatua ematen dizuete?

Hara, mesede ederra egin didazue, lagunok. Zuen laguntzari esker gauza askotaz konturatu naiz: neuk ere, helduaroan, tren-gidaria izan nahi dut baina hori, orain dela urte batzuk, ezinezkoa izango zela iruditzen zait. Ez dago eskubiderik!

Herri jolas eta jokoak

Poztu egin naiz zuek ikusita, garrantzi handi-handiko gauza bat kontatu nahi dizuet-eta. Gogoratzen al zarete, urtebetetze eguneko festarako jolasak antolatu behar genituela? Begira: zerbait

aparta bururatu zaigu, baina zuen laguntza behar dugu horretarako.

Herri-jolas eta joko tradizionaletan jardun nahi dugu, gure aitona-amonak, gurasoak eta gainerako pertsona adintsuak haurtzaroan zebiltzan haietan, alegia. Seguru nago zuek ere horrelakoetan behin baino gehiagotan parte hartu izan duzuela. Ni Youssef-ekin askotan jolasten nintzen baina, halako batean, familia osoa Alemaniara itzuli zen, hemen lanik aurkitzen ez zutelako eta, geroztik, ez dugu elkar ikusi. Urruti-urruti bizi dira aspalditik eta ni, urruti dagoela pentsatzeak tristetu egiten nau... (Agian, maitasunen botikinetik zerbait hartuko dut, suspergarri bat edo...)

Nire urtebetetze-oparirik hoberena Youssef etortzea litzateke, baina... ez dut uste hori gertatuko denik... Oso zaila da; ama, seguru aski, honezkero ez da harekin gogoratuko.

JARDUERA

Laguntza eskatuko dizuet, berriro ere. Herri-jolas bat, kanta duena edo kanta bakarrik bilatu nahi nuke... Nahi baduzue, letra aldatuko diogu eta, zaharraren partez, guk ikusi eta ikasitako gauzak txertatuko ditugu bertan. Niri, behintzat, gauza batzuk bururatu zaizkit, hara:

- Neskak eta mutilak berdinak garela,
- Etxeko lanak denon artean egin ditzakegula,
- Mutilak urdinez eta neskak arrosaz, hori bai txepelkeria galanta!
- Ez daudela neskentzako jostailuak eta mutilentzako jostailuak, jostailuak denentzakoak direla,

JARDUERA

Bi herri-kanta hauek aukeratu ditut. Zuek ezagunak zenituzten, ezta?

Hautatu gehien gustatzen zaizuena, irakurri letra eta pentsatu zein zati aldatu nahi dituzuen. Bideoan ikasiko duzue nola jokatu. Era berean, ezagutzen dituzuen beste kanta batzuk ere moldatu ditzakezue. Kontua da abestiak bestela moldatzea eta tarte atsegina pasatzea.

OI PELLO PELLO

Oi Pello Pello
logale nauk eta
jinen niza oherat?
Irun ezan eta
gero, gero, gero...
Irun ezan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello Pello
irun diat eta
jinen niza oherat?
Astalka zan eta
gero, gero, gero...
astalka zan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello Pello
astalkatu diat eta
jinen niza oherat?
Harilka zan eta
gero, gero, gero...
harilka zan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello Pello
harilkatu diat eta
jinen niza oherat?
Xuri ezan eta
gero, gero, gero...
xuri ezan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello Pello
xuritu diat eta
jinen niza oherat?
Irazki ezan eta
gero, gero, gero...
irazki ezan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello Pello
irazki diat eta
jinen niza oherat?
Pika ezan eta
gero, gero, gero...
pika ezan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello Pello
pikatu diat eta
jinen niza oherat?
Jos ezan eta
gero, gero, gero...
jos ezan eta
gero, gero, bai.

Oi Pello Pello
josi diat eta
jinen niza oherat?
Argia dun eta
bihar, bihar, bihar...
argia dun eta
jinen hiz bihar.

LOS DÍAS DE LA SEMANA

Nola dantzatzen den:

www.youtube.com/watch?v=0dOW5G1ydBs

Lunes antes de almorzar
una niña fue a jugar,
pero no pudo jugar
porque tenía que planchar.
Así planchaba, así, así. (x3)
Así planchaba, que yo la vi.

Martes antes de almorzar
una niña fue a jugar,
pero no pudo jugar
porque tenía que coser.
Así cosía, así, así. (x3)
Así cosía, que yo la vi.

Miércoles antes de almorzar
una niña fue a jugar,
pero no pudo jugar
porque tenía que barrer.
Así barría, así, así. (x3)
Así barría, que yo la vi.

Jueves antes de almorzar
una niña fue a jugar,
pero no pudo jugar
porque tenía que cocinar.
Así cocinaba, así, así. (x3)
Así cocinaba, que yo la vi.

Viernes antes de almorzar
una niña fue a jugar,
pero no pudo jugar
porque tenía que lavar.
Así lavaba, así, así. (x3)
Así lavaba, que yo la vi.

Sábado antes de almorzar
una niña fue a jugar,
pero no pudo jugar
porque tenía que tender.
Así tendía, así, así. (x3)
Así tendía, que yo la vi.

Domingo antes de almorzar
una niña fue a jugar,
pero no pudo jugar
porque tenía que pasear.
Así paseaba, así, así. (x3)
Así paseaba, que yo la vi.

Jai-giroan

JARDUERA

Hasteko, zer iruditzen zaizue hemen ikasi duzuena familiartekoei, gelako eta ikastetxeko kideei kontatzea, hemen berrantolatu dituzuen kantak abestea, eskolako blogean azaltzea...?

Denok eskubide eta aukera berdin-berdinak ditugula zenbat eta jende gehiagok jakin, orduan eta azkarrago aldatuko dira gauzak.

Azkenean, iritsi da eguna! Berebiziko festa da, sekulakoa, hemen izango gara ama, anaia, amona, izebak eta lehengusu txikia, auzo-lagunak eta, eskolakoen artetik, Maria, Lia, Chen, Teresa eta Paolo.

Amonak eta biok egin dugun pastela aparta da, goxo-goxoa, eta amak moldatutako girlandak, ezin dotoreagoak. Denei gustatu zaizkie.

Amonak, berak egurrez egindako tren-lokomotora oparitu dit, hau ilusioa! Baina denetan hoberena izan da Youssef eta bere gurasoak atetik sartzen ikustea! Emozioak malkoren bat atera dit; ez nuen espero horrelakorik, ez nuen uste ama horrekin gogoratuko zenik baina, azkenean, egin zaidan opariri k hoberena, egun berezi hau gehien maite ditudan pertsonekin partekatzea izan da!

Zuen kantarekin zoratu egin da Youssef: behin eta berriz kantatu izan dugu, zoragarria izan da. Letra, gainera, arrakastatsua izan da, den-denei biziki gustatu zaielako. Guztiei azaldu diet nork eta zergatik egin zen abestia.

Ba al dakizue? Argi baino argiago daukat orain, gauza askotaz jabetu naizelako. Heldua naizenean tren-gidaria izan nahi dut. Lehenago hori ezinezkoa izango zen, noski. Haiek bai garai bidegabeak! Dena den, pertsona askok borrokan jardun izanari esker, gauzak gero eta desberdinagoak izaten dira. Baina ez lokartu, bidea luzea da oraindik!

EZ ADIORIK, ADISKIDEOK!

kaleidoskópio

OXFAM Intermón